

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO BULTZATZEN JARRAITZEA DUGU AMETS, ETA ZUK?

Duela ia hiru urte, konpromiso horrekin aurkeztu ginen berriro Getxoko bizilagunen aurrean, eta, galdera horrekin, guztiok nahi dugun Getxorekin amets egitera gonbidatu nahi ditugu herritar guztiok. Amets eta konpromiso bat da, eta pixkanaka, egun hauetan, ia hiru urte igaro ondorik, mundu osoan zabaldutako pandemia jasaten jarraitu arren, betetzen ari gara konpromiso hori. Amaia Agirre alkateak azpimarratzen zigun, eta berak gidatzen duen taldean behin eta berriro esaten digu, EAJk Getxoren etorkizunerako proiekturik onena duela, Getxoko gizarteari, merkatariei, ekintzaileei, elkarreei, gazteei, adinekoei entzunez, ilusioz beteriko Getxo erdiesateko, hazi, bizi, lan egin eta gozatzeko udalerririk onenetako bat baita.

Eta aurre egin beharreko zailtasun handiak gorabehera betetzen ari garen konpromisoez ari garenean, egintzez ari gara, benetako jardueraz.

Laguntza zehatzaz ari gara, 231.000 euro, sustapen eta dinamizazio ekonomikoaren arloko jarduerak bultzatzeko. Batez ere, merkataritza eta ostalaritza elkarreentzako laguntzak dira, Getxokoak diren elkarrekin lehenetsiz, nego-



zio horiek hazteko ekimenak abiarazte aldera.

Merkataritza-sektorea, beste 30.000 euroekin, gure merkatarien eraldaketa digitala, hain beharrezkoa dena, bultzatzeko, haien etorkizun bidegarria bilatuz. Erosketa-prozesuak edo salmenta-prozesuak, kudeaketa-prozesuak edo, besteak beste, salmenta- edo komunikazio-kanal berriak automatizatzea alor digitalean.

Eta konpromiso gehiago betetzen dira: Gizarte babeseko 91 etxebizitza esleitzea, alokairuan, Iturribarri auzo berrituan. Konpromiso hori Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenari esker hartu da, egoera ahulenean dauden gazteei eta pertsona edo familiei etxebizitza izaten laguntzeko.

Edo Euskadiko Gobernuarekin batera, Mugiment Kirol Txartela, Getxo Kirolak-eko harpidedunei Euskadiko 53 kiroldegitararen doan sartzeko aukera ematen diena, behar duten ala ez ikusita. Konpromiso horiek betetzen ari dira Getxorekin onenarekin amets egiten jarraitzeko, hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko.



## LEZAMA LEGUIZAMÓN PARKEKO ARGIAK



Udalak udalerraren egoera onari eusteko ardura du, besteak beste, bideak, parkeak eta plazak egokiro argizatzea. Horregatik, joan den osteguneko Osoko Bilkuran, herritarren kexen berri emanez, argiztapen-sistema eraginkorra eta nahikoa ezartzea eskatzen dugu, La Avanzada edo Lezama Leguizamón parkeko erabiltzaileen lasaitasuna eta segurtasuna

bermatze aldera. Parke horrek, gaur egun, ez du argirik gauetan, eta, horrenbestez, leku iluna da, beldurra eta segurtasunik eza eragiten dituena. Gure proposamena Osoko Bilkuraren gehiengoak onartu zuen. Hortaz, espero dezagun orain auzotarren eskaera horri entzungor ez egitea eta Gobernu taldeak eskaera gauzatzeko aldera jardutea. #despiertagetxo



## EGOITZETAKO LANGILEAK, BORROKAN!

Bizkaiko egoitza pribatuetako langileak grebara doaz otsailaren 8an. Pandemia hasi zenean "ezinbesteko zerbitzu" izendatu zen erresidentzietako sektorea, gaitzaren lehen larrian egon zirelako. Mundu mailako pandemia bat behar izan zen ikusteko langile hauek ezinbestekoak direla gure bizitzaren sustengurako. Konfinamendu gordina pasatu eta gero aldiz, berriz ere bueltatu dira aurreko egoera berdinerara: ahaztuak eta prekarizatuak. Ikerketek diote zaintza beharrak eta menpekotasuna gora doazela, Euskal Herriko batez besteko adina gora doan bezalaxe. Eustatek dio 2030ean 65 urtetik gorako biztanleria gaur egun baino %32 gehiago izango dela. Gure sistema prest al dago etorriko den egoera hori jasateko? Guk argi daukagu ezetz.

Zaintza herritar guztiok daukagun beharra da, bizitzeko momenturen batean denok dugu zainduak izateko beharra. Hemen baina, zaintza negozio bilakatu da. Erresidentzia gehienak pribatuak dira eta publikoetako zerbitzu gehienak privatizatuta daude. Pribatizazioak, jakina den bezala, egoeraren kaxkartzea dakar: langileen lan-baldintzak eta erabiltzaileekiko arreta okertzen dira.

Langileek oinarritzko eskakizunak dituzte greba honen atarian: denbora gehiago erabiltzaileei arreta emateko, zereginak murriztea edota lana langile gehiagoren artean banatzea. Pertsonen bizi baldintzak dira jokoan dagoena, bukatu dezagun egoera honenkin. Zaintza sistema publiko-komunitarioa behar dugu, orain!



## ADINEKOEN ALDE ARI GARA LANEAN

Alderdi Sozialistak lanean jarraitzen du adineko pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko eta duintzeko. Gobernu Zentralak, Pedro Sanchez presidente sozialista buru duela, %2,5eko igoera onartu du kotizaziopeko pentsioetan eta %3ko igoera kotizazio gabeko pentsioetan (baxuenak), horien artean Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara. Horretarako, Madrilgo Gobernuak 6.500 milioi euro bideratu ditu birbaloratze horretarako, eta 11,5 milioi pentsiodunek jasoko dute neurri horren onura estatu osoan. Neurri horri esker, batez besteko pentsioa 651 euro igo da urtean, eta 16.424 eurora iritsi da.

Getxoko Udalak ahalegin handiak egin ditu adineko pertsonak babesten jarraitzeko Alderdi Sozialistak kudeatzen duen arloaren bitartez, hau da, Gizarte Kohesioaren bitartez; izan ere, arlo horrek 1.595.684 euro banatu ditu Gizarte Larrialdietarako 1.856 laguntzaren artean 2021. urtean. Laguntza horiek 746 familiari eman zaizkie. Laguntzok egoera ekonomiko zailan dauden eta beste prestazio batzuekin osatzen dituzten adineko pertsona askok jasotzen dituzte. Hain zuzen, PSE-EEK irrimo jarraitzen du ekonomia eta pertsona ahulenei laguntzeko apustuekin.



## GETXON TAXI ELEKTRIKORANTZ AURRERA EGITEKO LAGUNTZAK

Azken Osoko Bilkuran, 5 urteko epean Getxoko Taxi flota osoa ibilgailu elektrikoek osatzeko udal laguntzak sortzeko proposamena onartu zen. Albiste ona da hori taxilarien elkarreentzatzat, elkarrekin aspalditik ari baitzen neurri hori gauzatzeko ahaleginak egiten. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak 2023an Emisio Gutxiko Eremu bat izatera behartzen

gaituenez, garrantzitsua da garraio publikoaren eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen aldeko apustua egitea. Legeak beren-beregi eskatzen duena zorrotz betetzeaz gain, Getxon aukera eta baliabide nahikoak ditugu emisio gutxiko eta mugikortasun iraunkorreko hiri-eredu baterantz aurrera egiteko. [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus) / [www.elkarrekingetxo.blogspot.com](http://www.elkarrekingetxo.blogspot.com)